

EUSKAL HIZTEGI ARAUEMAILE ENTZIKLOPEDIKOAREN PROJEKTOA

Donostia, 1976-X-29

Ibon Sarasola

Duela urte bete baino gehiago Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak, Ager elkartearen eraginez, euskal Hiztegi Arauemaile Entziklopediko baten moldaketa gomendatu zigun. Informe honen helburua, zer egin den eta zer egin nahi den laburki aditzera ematea da.

Hiztegi arauemaile baten betebeharra ez da, hiztegi deskriptiboetan gertatzen den bezala, hitz bakoitzaren bariante eta erabilmolde guztien berri ahalik zehatzen ematea. Hiztegi arauemaile batek, aldezturik hizkuntzaren ondasun lexi-koari buruzko gogoeta sakon bat suposatzen du eta ondorioz, ondasun horren sistematizatzeko eta sailkatzeko lan bat. Euskara kultur hizkuntza bihurtu nahi badugu, hots, Lizardik hain ongi adierazi zuen nahikunde hura, gure hizkuntza larrekoa noranahikotzekoa hain zuzen, errealitate oparo bilakaturik ikusi nahi badugu, nahi-ta-ezkoa dugu bigarren urrats hori, hizkuntza idatziaren batasunaz hasi genuen prozesuari konplutuki buru emateko. Hildo honetan ikusten dugu bost urtez euskal hiztegi arauemaile bat tankeratzen egingo ditugun ahaleginen zentzua.

Ahalegin honetan aurkitzen ari garen behaztopak ez dira txikiak. Lehenik Mitxelena irakasleak bere "De lexicographia vasca" *Fointes Linguae Vasconum*-en 16. zenbakian argitaratu zen artikuluan aipatzen dituenak hartu ditugu gogoan. Gure egitekoa kultur hizkuntza bati dagokion hiztegia prestatzea delarik, ezin gaitezke gehiegi balia euskal hiztegiak urteren buruan gauzatu duen tradizioaz. Gure lan lexicografikoak, ikuspegi honetatik, hiztegiak baino areago izendegi soilak dira: adibidez haietatik batek ere ez du ematen hiztegi arauemaile batek ezin bazterrera duen informazio bat, hitzen gramatik kategoriarena hain zuzen. Bestalde euskal hiztegi ia guztiak erdara-euskara ala euskara-erdarazkoak dira. Beraz, hitz baten euskal definizio prestatzean, tradizio gabezia gorri baten aurrean aurkitzen gara. *Batasunaren Kutxa*-ri dagokionez, hiztegi aintzindari horren balioa gutxietsi gabe, adierazi

behar dugu gehienetan hitzaren zentzuaren adierazpen anbiguoegi bat ematen digula egiazko definizio baten ordez.

Euskal hiztegien artean fidagarriena eta osatuena, eta gure egitekorako baliagarriena, Azkueren *Diccionario Vasco - Español - Francés* da, eta hori hartu dugu gure lanaren lehen etaparen oinharritzat. Baina Azkueren hiztegiak ez ditu gainditzen euskal hiztegi gintzari buruz aipatu ditugun akatsak, eta bestalde ematen duen informazioa egiaztatu, zuzendu, zehaztu eta osatu egin behar zela ikusi dugu. Horretarako, alde batetik Azkueren hiztegiari buruzko lan kritikoez baliatu gara, batez ere Lafon etra Mitxelena irakasleenez, bereziki bigarrenaren *Estudio de las fuentes del Diccionario de Azkue* obra oinarrizkoaz. Bestetik literatur tradizioiko idazle garrantzitsuenen hustutze lexikoak egin ditugu, mostra nahiko hedatuak erabiliaz. Sortaldeko tradizio zaharrari dagokionez Etxeberri Ziburukoa eta Etxeberri Sarakoa sakonki aztertu ditugu eta halaber Xurio. Axularri dagokionez Aita Villasantek prestatu duen hiztegi guztiz bikaina erabili dugu eta Leizarragarentzat Arestik bildu zuen izendegia. Etxepare, Oihenart, Materre, Tartas, Haraneder eta beste zenbait lapurtar ere aztertu ditugu baina sakontasun gutiagoz. Orobat, eta Mitxelenari esker. Silvain Prouveauren hiztegi argitaragabea miratzeko aukera izan dugu. Sartaldeko tradizioari dagokionez, Agirre Asteasukoa, Lardizabal, Juan Antonio Mogel, Iztueta, Frai Bartolome eta Krispin Beobide ia exhaustiboki aztertu ditugu, eta sakontasun gutiagoz Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos, Añibarro, Astarloa, Uriarte, Iturriaga eta Arrue. Lapurtar modernoari dagokionez batez ere Duvoisin en Biblia ikertu dugu. Literatur lanez gainera beste zenbait lan ere miratu ditugu, hala nola Aita Uriartek Bonaparte printzeari idatzi zizkion gutunak. Jardunaldi honen ondorioz 25.000-ren bat erreferentzia bildu ahal izan dugu.

Baina argi dagoenez, gomendatu zaigun egotekoan ezin gaitzke muga arbasoengandik jaso dugun ondasun lexikoaren sailkatze-lanera. Hizkuntza bat sistema bizi bat da, eta beraz, aldakortasuna du halabeharrezko legetzat. Aldakortasun horren bilakabidea, hizkuntzaz baliatzen den gizartearen komunikatze-beharkizunek gidatzen dute. Azken urteotan euskal gizartearen egiruan, denok ongi ezagutzen dugun aldakuntza funtsezko bat gertatu da, eta gure hizkuntza funtsezko aldakuntza horretara egokitzen saiatzen da gaur egun.

Euskararen eguneratze-prozesu honen ondorioz aurrera bidatuz doan hizgintza berriak ikerketa sakon eta orokor bat eskatzen du, egitura lexiko orok beharrezko duen barne koherentzia deusezta ez dadin. Esan gabe doa eginkizun hori hartu dugula gure hiztegi arauemailearen helburu nagusitzat. Hildo honetan eta lehen urrats bezala egungo literaturgintzan probetxagarri aurkitzen dugun guztia fitxaratzen ari gara, dgoenekoz 9.000-ren bat erreferentzia jaso ditugularik. Bestalde egiteko berean ari direnekin harremanetan jarri gara, bereziki euskal zientzi hiztegia lantzen ari den Elhuyar taldearekin. Era honetako harremanak aurrerantzean sendotzeko eta ugaritzeko asmo finkoa dugu.

Hiztegia tankeratzen hasteko orduan, ba zen alde zuzen erabaki behar genuen zerbait: zer hizkuntz eredu behar genuen hartu oinharritzat?

Puntu honetan bi iritzi edo aukera nagusi azaltzen zitzaizkigun. Lehenak, arazoari ikuspegi filologiko huts batetatik so eginik, lapurtar klasikoaren tradizioa eta bereziki Leizarragaren hizkuntz eredu oinharritzat eskatzen zuten. Bigarrenak, gaur egun euskararen indarra Gipuzkoa eta Bizkaian dagoela kontutan harturik sartaldeko literatur tradizioan oinharritzea proposatzen zuten. Bi jokaeron alde positibo eta negatibo azterketak ikus arazi zigun delako ikuspegiak ez zirela berez kontrajargarriak, askok uste duten bezala, elkar-osagarriak baizik. Puntu honetan ba da arazo bat euskaldunak behar adina gogoan hartzen ez duguna: hizkuntz mailena hain zuzen. Lehenago adierazi dugunez, mintzaira bat kultur hizkuntzaren kategoriara jasotzeak, haren ondasun lexikoaren sistematizatze bat eskatzen du, eta sistematizatze horretan hitz bakoitzaren denotazioaz gainera beraren konnotazio-multzoa eduki behar da gogoan. Exemplan bezala gaztelania hartzen badugu, ikusten dugu adibidez "sacamuélas", "dentista" eta "odontólogo" hitzak dituela, eta nahiz hirurak esannahi berbera duten, hots, denotazio berbera, hirurak ez dirala hitz berdín eta trukagarritzat hartzen, konnotazio desberdinak dituztelarik bakoitza hizkuntz maila bati dagokiola. Inguruko kultur hizkuntzak latinera jo izan dute hitz kultoak eratu behar zituztenean, eta rusoak bulgaro zaharrera, adibidez. Gure kasoan eta nere iritzian, maila standarda sartaldeko literatur tradizioan oinharritu beharko genuke, beharrezkoa duen koherentzia eta osatasuna euskal filologiak

prestatu dituen lanabesez ematen diogularik. Eginkizun honetan Mitxelena-ren *Fonética Histórica Vasca* baztergaitza geratzen zaigu. Lapurtar klasikoak, latinaren edo bulgaro zahararen papera jokatzuz, maila kultoago horren eraketan lagundu beharko liguke. Horrela, adibidez, "hertsi" eta "itxi" formak ez lukete elkarren etsai izan behar elkar-osagarriak baidizik gaztelaniaz "estricto"/"estrecho", "plano"/"llano" edo "amplio"/"ancho"-rekin eta gainerako kultur hizkuntzetan antzeko bikoteekin getatzen den bezala. Horrela jokatzuz uste dugu Euskaltzaindiaren iritziak zuzenki interpretatzen eta betetzen ditugula, eta gure ondasun lexikoak eskaintzen dizigun posibilitateak areago probetxatzeko aukera dugula.

Ondasun hori ahalik gehien probetxatzeko arazoan, argi dago denontzat euskaraz deribazioaren eta konposizioaren bidez hitz berriak sortzeko duen ahalitasuñez ere ahalik gehien baliatu behar dugula. Horrek hizkuntzaren aurrizki eta atzizkien estudio taxuzko bat eskatzen du, gauzak bere onetik atera ez ditzagun eta aipatu dugun inkoherentziatik begiratu gaitezen. Gaur egun eta Aita Villasanteren *Palabras vascas compuestas y derivadas*-i esker ba dugu egiteko horretarako abiaburu nahiko egoki bat.

Aipatu berri dugun euskararen doai hori dela eta, ba ditugu hainbat hitz, garbizaletasun edo garbizalekeriak eraginik, gauzak bere onetik aterata sortu ditugunak, edo berez ez zegokien esannahi bat hartzera bultzatu ditugunak. Arazo honetan, Euskaltzaindiarekin batera, nahiko zabalki jokatu behar dela uste dugu, baina kasu desberdinak desberdinki tratatuz. Ez da hau honi buruzko teoria oso bat aditzera emateko mementua, ez lekua, baina gure jokabidearen ardatz nagusien argigarri, exenplu batzuk emango ditugu. Lehenik, "abesti" baztertu gabe "kanta" hitz zaharrari lehentasuna emango diogu, baina baita ere "idatzi"-ri "izkribatu"-ren aurretik, hau ere baztertu gabe, lehenak euskal idazleen artean izan duen harrera onagatik. "Eskola"/"ikastola" eta antzekoeri dagokionez, azken bolada honetan egiten hasi garen bereizketa semantikoari guztiz onuragarria derizkiogu, hizkuntzaren aberasbidea besterik ez baitigu ekarriko. "Lehendakari" eta beste zenbait hitzek izan duten harrera onak haien erdal ordainak baztertzeko eskubidea emten digula uste dugu, nahiz azken hauek zenbait deribatuetan erabili beharko ditukegun. "Txadon" eta antzekoak, arrazoi berbe-

ragatik guztiz baztergarriak iruditzen zaizkigu. Azkenik, eta honekin beste arazo batetara hurbiltzen gara, "buruhandi" bezalako hitz bat, guztiz jatorra bada ere, ezin daiteke inolaz ere "megalocéfalo"-ren ordaina izan, konnotazio jakinez kargatuegia gertatzen delako.

Sail hau bukatzeko, azken bolada honetan gure izkribuetan hain ugari erabiltzen ditugun erdarazko hitzen arazoa geratzen zaigu. Puntu honetan gure iritzia finkoa da. Gaur egun baserritarrak ez dute jadanik euskaldunen heren bat ere osatzen, eta hauen artean gehienak giro guztiz hiritar batetan bizi dira. Euskal gizarte hiritar eta industriatu honek, sartaldeko kultura modernoa bere ñabardura eta aberastasun osoan adierazteko adina hitz behar ditu, ez bat gehiago baina ez bat gutxiago ere. Berez sor ez ditzazkeenak, erdarei maileguz hartu beharko dizkie nahi-ta-ez. Puntu honetan, garbizaletasun-gehiegikeriak ez luke ondorio bezala gure hizkuntza baldartzea eta murriztea baizik ekarriko. Bere ahalmenak desarroilatuz euskara ordainezko hitz egokiak sortuz doakeen era, mailegu hauetatik zenbait baztertzeko aukera izango dugu. Beste zenbait gureganaturik gertatuko zaizkigu, beti eta nonnahi gertatu den legez. Mailegu horiei dagokionez, ez dizkiegu, zenbaitek hobe asmoz egiten duten bezala, euskal hitz jtorrentzat nahi ez ditugun lege fonetiko dialektalak ezarriko, horrela jokatzeko itxurakeria alferren engainagarrian erortzea besterik ez bailitzateke izango. "Estudiatu" forma onhartuko dugu beraz, eta ez "ixturiatu". Erdal hitz bat saihesteko ez dugu esannahi berdintsu baina diferenteko euskal hitz baten hedadura semantikoa bortxatuko, hortik anbiguokeria, nahasmendua eta gabildea baizik ez baikenuke aterako. Hain zuzen gure egiteko halabeharrezkoa hitz bakoitzaren barruti semantikoa ahalik zehazkien eta exaktoen mugatzea da, hori baita hain zuzen kultur hizkuntza bilakatu nahi duen mintzaira ororen lehen betebeharra. Guzti honek ez du esan nahi, ez urrik eman ere, gaztelaniazko hitz bakoitzaren euskal ordaina ematen arituko garenik.

Azken argibide bat beharrezkoa iruditzen zaigu. Gure hiztegia ez da burutua izan euskara kultur hizkuntza bilakatzen saiatzen ari direnengan soilik pentsatuz. Gure artean hain usu erabiltzen den maila ia folklorikoan aritu nahi dutenentzat ere baliagarri izan behar du. Horretarako, eta zehaztasunak ekarriko lizkigukeen zailtasunak saihesteko batez ere

perifrasietara eta artxisememetara jotzen dugula ikusirik, erdaratik hartu behar den malegu bakoitzaren adierazpe-nean, haren balioa duen perifrasi bat emango dugu, eta ahal den guztietan, haren artxisemema. Horrela, adibidez, "esko-la", "kolegio", "akademia", "unibertsitate" eta abar saihes-tu nahi dituztenentzat, horien artxisemema den "ikastetxe" ezarriko dugu. Berdin "itxasontzi", "eserleku", "lantegi" eta abar, dagozkien kasuetan.

Hiztegiaren gauzatze materialaz hitzegin aurretik, azpi-markatu nahi dugu ez dugula inolako grinarik gure iritzi per-sonalak bertan ezartzeko. Aitzitik, euskal hiztegitantzaz aldez edo moldez arduratzen diren guztiek gure ahaleginean parte har dezaten nahi dugu. Hildo honetan, gure imardukiaren berri Euskaltzaindiari zehatz eta periodikoki emateko asmoa dugu. Horretarako, egokiena delakoan, honako bide hau hau-tatu dugu. Lana sei hilabeteko hamar epetan zatitu dugu. Epeotako lana zazpi prestaeratarara bilduko da, lehengo biak hiztegiaren lehen etapa osatzen dutelarik. Lehen etapa hone-tan ohizko lexikora mugatuko gara, honen posibilitateen eza-guera taxuzko batek, bigarreanean gertatuko zaizkigun behaz-topak, hala nola maileguen arazoa, egokiago gainditzeko aukera emango digulakoan. Prestaera guztietan, aurkezten den hitz bakoitzari dagokionez, haren formaz gainera, izenen kasuan konposatuetan hartzen duen forma, adibidez "lepa", "lepo"-rentzat, eta aditzen kasuan sustraiaren forma ez kon-jukatuak, adibidez "har", "hartu", "hartzen", "hartuko", adieraziko ditugu. Ondoren, bidezko dadinean, hitzaren gaz-telaniazko, frantsesezko eta ingelesezko ordainak. Halaber gramatik kategoria, maila, eta esannahi nagusia, sekunda-rioak eta figuratuak, definizio ahalik zehatzenen bidez. Azke-nik erabilmoldeari buruzko oharrak eta exenpluak, eta, ahal den neurrian, sinonimoak, antonimoak eta artxisemema.

Lehen prestaera 1977ko apirilaren 15ean jarriko dugu Aurrezki Kutzaren eskuetan, berehala inprimatua izan dadin eta maiatzaren bukaera baino lehen euskaltzainen eskuetara hel dadin. Euskaltzain bakoitzari bi ale bidaliko zaizkio, bata gorde dezan, eta bestea oharreztaturik itzul dezan. Ohar-lan hori errazteko, aleen orriak bi zutabetan moldatuko dira, bata beterik eta bestea hutsik, hitz bakoitzari dagozkiokeen oharrak gure proposamenaren ondoan bertan egin ditezen. Ale oharreztatu hauek, lanaren abiada behaztopa ez dadin,

urriaren hasierako itzuli beharko lirateke, lau hilabeteko epe baten ondorez beraz. Bigarren prestaera irailaren 30ean entregatuko da, azaroaren erdialderako euskaltzainen eskuetan gerta dadin eta martxoaren 15erako beren oharrak itzul ditzaten. Ohar-sail hauk aztertu ondoren bigarren etapari ekingo diogu, bost prestaeratan eta ihardukibide beraz baliaturik. Azkenik 1980aren abuztuaren 30ean hiztegi osoa Aurrezki Kutxaren eskuetan jarriko dugu, berehala lehen argitarapen oso eta publikoa egin dezan.

Badakigu hiztegi arauemaile baten izanlegea hitzegileen eta bereziki idazleen multzoak opa dezaion harreran datzala. Horiek ez badute bereganatzen, alferlanean aritu izango gara. Arriskuari buru ematen diogu, baina berehalako arrakasta erraza bilatu baino, nahiago dugu etorkizuizunari begira aritu. Jokaera horrek gure lanaren efikazia murriz ez dezan, beharrezkoa da gure ihardukia oinharritu duten ikuspegiak eta aurkeztu zaizkigun problemei eman dizkiegun irtenbideak jendaurrean aditzera eman ditzagun, euskal aldizkariren batetan publikatzen hasi nahi dugun artikulua labor sail baten bidez. Punto honetan Pompeu Fabraren irakaskintza hartzen dugu. *Converses Filologiques* artikulua-sorta erabakikorra izan zen katalana kultur hizkuntza bihurtzeko azken pausoa suposatzen zuen *Diccionari General de la Lengua Catalana*-ren arrakastan.

Gogo onez desiratzen dugu gure lana zurikeriarik gabe epaitua eta kritikatu izan dadin, baina kontutan hartuz ez garela euskararik ederrena edo goxoena edo garbienaren bila ari, eta are gutxiago ari garela protoeuskara eraiki nahian. Gure eginbidea, eta hontaz ohartuki konturatzen gara, askoz ilunagoa eta eskergaitzagoa da, eta zenbaitentzat beharbada askoz prosaikoagoa, gure eginbidea kultur hizkuntza bat eratzen ahaleginean lehiatzea baita.

PROYECTO DE DICCIONARIO NORMATIVO ENCICLOPÉDICO VASCO

Hace ya más de un año que recibimos de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, a través de la Sociedad Ager, el encargo de realización de un Diccionario Normativo Enciclopédico Vasco. El presente informe trata de explicar en pocas líneas lo que hemos hecho y queremos hacer en este sentido.

La misión de un diccionario normativo no es, como sucede con los diccionarios descriptivos, la de dar cuenta lo más detallada posible de todas las variantes y usos de cada palabra. Un diccionario normativo supone previamente una profunda meditación sobre el patrimonio léxico del idioma y, como consecuencia de ello, una labor de sistematización y clasificación de dicho patrimonio. Si queremos ver concretado el deseo tan bien expresado un día por Lizardi, convertir el euskera en idioma de cultura, nos es absolutamente necesario dar este segundo paso que completará el proceso que comenzamos con la unificación del idioma literario. Justamente en esa dirección vemos sentido al trabajo al que dedicaremos todos nuestros esfuerzos a lo largo de cinco años.

Las dificultades que estamos encontrando en nuestro cometido no son pequeñas. Tenemos, en primer lugar, las expresadas por el profesor Mitxelena en su artículo "De lexicografía vasca", publicado en el nº 16 de *Fontes Linguae Vasconum*. Siendo nuestra intención el elaborar el diccionario correspondiente a un idioma de cultura, la tradición lexicográfica vasca no nos sirve demasiado en esta labor: la mayoría de los trabajos lexicográficos vascos, más que auténticos diccionarios, son simples vocabularios; no aportan, por ejemplo, información en lo referente a las categorías gramaticales, básica para nuestro trabajo. Por otra parte, los diccionarios vascos son interidiomáticos, es decir, castellano-vasco, francés-vasco, o viceversa. Por lo tanto, a la hora de establecer la definición de cada palabra, nos encontramos con una absoluta falta de tradición. Por lo que respecta al *Batasunaren Kutxa*, sin dejar de subrayar su importancia como diccionario precursor, hemos de indicar que, en lugar de auténticas definiciones, nos aporta, en muchos casos, simples aproximaciones de valor dudoso.

El más completo y fiable de los diccionarios vascos y, por lo tanto, el más valioso para nosotros es el *Diccionario Vasco - Español - Francés* de Azkue. Dicha obra es la que hemos utilizado como base para la primera etapa de nuestro trabajo. Pero el diccionario de Azkue no supera las deficiencias que acabamos de hacer notar y, por otro lado, hemos visto la conveniencia de verificar, corregir, precisar y completar la información por él facilitada. Para ello, nos hemos servido fundamentalmente de los trabajos críticos realizados por los profe-

sores Lafon y Mitxelena, dedicando una particular atención al *Estudio de las fuentes del Diccionario de Azkue* de éste último. Asimismo, hemos realizado vaciados léxicos de los principales autores de nuestra tradición literaria, utilizando para ello muestras lo suficientemente amplias. Por lo que respecta a la tradición continental antigua, hemos estudiado con especial detalle a los Etxeberri de Ziburu y Sara, así como a Xurio. En lo referente a Axular, contamos con el excelente y exhaustivo vaciado léxico del Padre Villasante y, para Leizarraga, con el completo vocabulario confeccionado por Gabriel Aresti. Estudiamos también, aunque con menor detenimiento, la obra de Etxepare, Oihenart, Materre, Tartas y otros escritores labortanos. Asimismo, y por amabilidad del profesor Mitxelena, hemos tenido oportunidad de consultar el diccionario inédito de Silvain Pouvreau. En lo que concierne a la tradición literaria peninsular, hemos estudiado casi exhaustivamente la obra de Agirre el de Asteasu, Lardizábal, Juan Antonio Moguel, Iztueta, Fray Bartolomé y Crispin Beovide y, con menor profundidad, Cardaveraz, Mendiburu, Ubillos, Añibarro, Astarloa, Uriarte, Iturriaga y Arrue. De los escritores en labortano moderno, nos hemos limitado prácticamente al análisis de fragmentos amplios de la traducción de la Biblia efectuada por Duvoisin. Aparte de la producción literaria, hemos trabajado con otros materiales de interés, como la correspondencia enviada por el P. Uriarte al Príncipe Bonaparte. Como consecuencia de esta actividad, hemos obtenido unas 25.000 referencias lexicográficas.

Pero, como es evidente, el trabajo que nos ha sido encomendado no puede limitarse a la sistematización del patrimonio léxico que hemos heredado de las generaciones anteriores. Una lengua es un sistema vivo que tiene, por lo tanto, la mutación por norma inexorable. Son las necesidades de expresión de la comunidad que se sirve de una lengua las que dirigen el sentido de dicha mutación. La sociedad vasca ha sufrido en las últimas décadas una transformación conocida por todos, y nuestro idioma trata ahora de adaptarse a los cambios que dicha transformación ha supuesto. Como consecuencia de este proceso de adaptación y puesta al día del euskera, asistimos a un fenómeno de desarrollo lexical que exige una labor de revisión profunda y general que elimine el riesgo de las incoherencias estructurales inherentes a todo desarro-

llo. Sin lugar a dudas, hemos considerado esta labor como una de las tareas primordiales a realizar. En este sentido y como primera actividad, estamos realizando una selección de todo aquello que nos parece interesante en la actual producción literaria vasca, habiendo recogido hasta el momento más de 9.000 referencias. Asimismo, nos hemos puesto en contacto con personas que están realizando una tarea similar, en particular con el grupo Elhuyar, que trabaja en la confección del léxico científico vasco. Tenemos el propósito decidido de incrementar en un futuro próximo este tipo de contactos.

A la hora de comenzar a estructurar el diccionario nos tuvimos que enfrentar a una cuestión previa: Qué modelo idiomático habíamos de adoptar como base de nuestro trabajo? Se nos presentaban dos opciones fundamentales. La primera, basada en puntos de vista puramente filológicos, propugnaba como base la tradición labortana clásica y, en concreto, el modelo idiomático de Leizarraga. La segunda, teniendo en cuenta que en la actualidad son Guipúzcoa y Vizcaya las áreas de mayor vitalidad del idioma proponía basarse en la tradición literaria peninsular. La confrontación de los aspectos positivos y negativos de ambas tendencias nos hizo ver que, al contrario de lo que muchos opinan, dichas opciones no se excluyen, sino que se complementan mutuamente. Respecto a este punto, existe una cuestión que, en nuestra opinión, no es tenida en cuenta suficientemente por los lexicógrafos vascos: es la que se refiere a los niveles de lenguaje. Como hemos indicado, el elevar un idioma a la categoría de lengua de cultura exige una labor de sistematización de su patrimonio léxico, y en esta sistematización se ha de tener en cuenta, además de la denotación, el conjunto de connotaciones de cada ítem lexical. Si tomamos como ejemplo el castellano, nos encontramos que posee palabras como "sacamuelas", "dentista" y "odontólogo" que, aunque significan lo mismo, es decir, aunque tengan la misma denotación, no se consideran palabras idénticas e intercambiables, ya que, al poseer connotaciones diferentes, pertenecen a distintos niveles idiomáticos. Las lenguas de cultura circundantes se han servido del latín cuando han sentido la necesidad de crear un léxico, y lo mismo ha hecho el ruso, valiéndose, por ejemplo, del búlgaro antiguo. En nuestro caso, y según nuestra opinión, deberíamos adoptar, para el nivel standard, el modelo

desarrollado por la tradición literaria peninsular, empleando los instrumentos que la filología vasca actual aporta para completar y dar a dicho modelo la coherencia que necesita. Para esta tarea, la *Fonética Histórica Vasca*, del profesor Mitxelena, sigue siendo una obra fundamental. El modelo labor-tano clásico debería jugar un papel similar al que hemos señalado para el latín y el viejo búlgaro, cooperando a la creación de nuestro léxico culto. Así, por ejemplo, las formas "hertsi" e "itxi", en lugar de excluirse mutuamente, han de complementarse, como lo hacen en castellano los dobles "estricto"/"estrecho", "plano"/"llano" o "amplio"/"ancho" y, en otros idiomas de cultura, dobles similares. Creemos que, obrando de este modo, interpretamos y cumplimos correctamente las directrices de la Academia de la Lengua Vasca, y aprovechamos al máximo las posibilidades de utilización que nos ofrece nuestro patrimonio léxico.

Sobre lo que no existe discusión es sobre la necesidad que tenemos de explicitar al máximo las grandes posibilidades que para la formación de nuevas palabras nos brindan en euskera la composición y derivación. Ello exige un serio estudio de nuestros prefijos y sufijos que nos impida sacar las cosas de quicio o caer en incoherencias similares a las que hemos mencionado. Obras como la del Padre Villasante, *Palabras vascas compuestas y derivadas*, constituyen un buen punto de partida para la consecución de nuestro propósito.

Como es sabido, existe en euskera una serie de palabras que, por imperativos puristas, han sido creadas llevando más allá de límites razonables estas posibilidades creativas del euskera, o a las que se ha hecho tomar acepciones que de por sí no les correspondían. Respecto a ellas, y de acuerdo con la Academia, creemos que deben ser juzgadas con criterios que superen el estrecho y siempre problemático punto de vista de la corrección lingüística y atiendan otros factores como el de su aceptación por parte de los escritores. El problema es delicado y exige un tratamiento individualizado en cada caso.

Queda, por último, la cuestión de los préstamos de otras lenguas, de los que tanto uso estamos haciendo en estos últimos años. Nuestra opinión en este punto es terminante. Hoy en día los baserritarras no suponen ya ni un tercio de los vascohablantes y la mayoría de éstos se desenvuelven en un ambiente netamente urbano. Esta sociedad vasca, urbana e

industrial, necesita tantas palabras como las que precise para expresar la civilización occidental moderna con toda su riqueza y en todos sus matices, ni una más, pero también ni una menos. Las que no pueda crear por recursos propios habrá de conseguirlas irremediamente por préstamos. En esta cuestión, los excesos puristas no nos acarrearían más que un idioma torpe y falto de recursos expresivos. A medida que el euskera vaya desarrollándose, irá creando equivalentes efectivos para algunas de estas palabras. Otras quedarán integradas en su estructura léxica, como ha ocurrido siempre entodas partes. Por lo que respecta a estos préstamos, no les aplicaremos las leyes fonéticas dialectales que hemos rechazado para las palabras genuinamente vascas en la unificación literaria, pues ello supondría simplemente caer en la trampa de las falsas apariencias vasquizantes. Para evitar el préstamos, no forzaremos el campo semántico de una palabra vasca de significación parecida pero diferente, pues ello traería como consecuencia sólo la ambigüedad y la confusión. Justamente, nuestra labor consiste, por definición, en precisar y limitar lo más posible el campo semántico de cada palabra. Esta es la primera condición que ha de cumplir todo idioma que quiera convertirse en lengua de cultura.

Creemos necesario una última aclaración. Nuestro diccionario no ha sido concebido pensando únicamente en aquellos que tratan de hacer del euskera un idioma de cultura. Ha de servir igualmente para aquellos que entre nosotros, tan frecuentemente, desean utilizar un nivel de lenguaje casi folklórico. Para ello, y teniendo en cuenta que para esquinar las dificultades que nos acarrea una expresión exacta nos servimos principalmente de perífrasis y archisememas, en la definición de cada préstamos utilizaremos perífrasis de valor equivalente e indicaremos, siempre que sea posible, el archisemema correspondiente.

Antes de pasar a los aspectos materiales de la confección de nuestro diccionario, hemos de señalar que no tenemos ningún interés en utilizarlo como una plataforma para imponer nuestras opiniones personales. Al contrario, deseamos que en esta empresa participen lo más intensamente posible todos aquellos que de alguna manera se interesan por los problemas lexicográficos vascos. Concretando este deseo, tenemos intención de dar a la Academia cuenta detallada y periódica del

desarrollo de nuestros trabajos. El mecanismo que hemos elegido para ello es el siguiente: Hemos dividido el trabajo en 10 períodos semestrales, de los que derivarán siete entregas en dos etapas. En la primera etapa, que absorberá las dos primeras entregas, nos limitaremos al léxico tradicional, en la seguridad de que un conocimiento exacto de las posibilidades que éste nos ofrece nos permitirá afrontar más correctamente, en la segunda etapa, cuestiones más delicadas como la referente a los préstamos. En todas las entregas, de las palabras presentadas se indicarán, para los sustantivos, su forma normal y la adoptada para derivados y compuestos y, en el caso de verbos, todas sus formas finitas. A continuación, siempre que sea oportuno, sus equivalentes en castellano, francés e inglés; su categoría gramatical, a nivel de acepciones principales, secundarias y figuradas, por medio de definiciones lo más exactas posibles. Por último, observaciones acerca de su uso y ejemplos de utilización, sinónimos y antónimos en la medida de nuestras posibilidades, así como el archisemema, siempre que sea posible. La primera de las entregas se realizará el 15 de abril de 1977. Inmediatamente se imprimirá, de forma que antes de finales de mayo pueda llegar a manos de los académicos. A cada uno de ellos se le enviarán dos ejemplares, uno para su uso particular y otro para que nos lo remita con las observaciones y correcciones que juzgue convenientes. Para facilitarles esta tarea, los ejemplares se compondrán a dos columnas, una con nuestra propuesta, reservándose la otra para las correcciones. Por lo que respecta a esta primera entrega, y para que la marcha del trabajo no se vea perturbada, los ejemplares corregidos deberían volver a nuestras manos antes del primero de octubre, es decir, tras un período de cuatro meses.

La segunda entrega se realizará el 30 de septiembre de 1977. Llegará a los académicos hacia mediados de noviembre, debiendo ser entregados antes del 15 de marzo de 1978. Así podremos utilizar las correcciones para la redacción de las cinco entregas de la segunda etapa, que igualmente se entregarán con una periodicidad semestral. En esta segunda etapa, utilizaremos el mismo mecanismo de consulta que en la primera. Finalmente, el 30 de agosto de 1980 pondremos el trabajo completo en manos de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa para su inmediata publicación.

Sabemos que la justificación de un diccionario normativo reside justamente en su aceptación por el conjunto de hablantes en general y de escritores en particular. Si éstos no lo adoptan como suyo, nuestro trabajo habrá sido estéril. Afrontamos este riesgo, pero en lugar de buscar el éxito fácil e inmediato, preferimos realizar una labor con proyección de futuro. Para que estos presuñpuestos no malogren la viabilidad de nuestro trabajo, pensamos que es necesaria una tarea complementaria, al margen de la específica del diccionario: la de divulgación de los criterios que hemos utilizado para la resolución de los problemas que se nos han ido planteando, a través de artículos en alguna de nuestras revistas. En este punto seguimos el ejemplo de Pompeu Fabra, cuya serie de artículos *Converses Filologiques* fué decisiva para el éxito de su *Diccionari General de la Llengua Catalana*, que consagró definitivamente al catalán como lengua de cultura.

Deseamos sinceramente que nuestro trabajo sea criticado y juzgado sin contemplaciones, pero teniendo en cuenta que no tratamos de establecer el modelo idiomático más depurado, ni el más popular, ni el más castizo, y que mucho menos tratamos de reconstruir el protovasco. Nuestra labor, y somos conscientes de ello, es mucho más oscura e ingrata, y quizá para algunos más prosaica. Consiste simplemente en aportar todo nuestro esfuerzo en el establecimiento de un idioma de cultura.

KOSKA ETA ENTTERKA HELETAN

1976-IX-24

P. Lafitte

Herri guzietan ohidurak ez dire berdinak *hi*-ka mintzatzeko.

Asko tokitan haur ttiki-ttikieri ez zaie *hi* erraiten, *zu* edo *xu* baizik.

Geroxago, adimendu adinerat heldu-ta hasten zaie *to*-ka ala *no*-ka.